




## Onki Xin



ONKI XIN.... elkartzeko garaia.

50 urtek askorako ematen dute, besteak beste, hiri-eremuaren eta landa-eremuaren arteko bidegurutzerako.

Natura, mendiko jarduerak, landa-mundua maite duen talde batek, elkarte batek, bere ametsetarako oinarrizko eremu bat bilatu zuen. Uztárroz aurkitu zuen, herri eder bat Nafarroako Pirinioetako eremu oso berezi batean, Erronkarin. Pirinioetako egunerokotasunean

lerratzten den herria. Erakusketa gune honetara ekarri nahi dugu handik pixka bat, hemengook han izan ditugun bizipenekin bat etortzeko. Eta bidaia horretarako ibilgailua Bortiriko aterpea da, 50 urte betetzen baititu naturan topaketak, proiektuak eta askatasuna egiten.